

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2011ko azaroaren 10ean egindako tailerraren akta



### Tailerraren aurkezpena

#### Legazpin herri-barruko autobus-linea martxan jartzeari buruz hausnartzea.

Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planean jasotako helburuen arabera, planteatzen den barruko autobus-linea: Nori zuzentzen zaio? Erabiliko al da? Beharrezkoa al da?



Hiru lerro horietan laburtzen da gaurko tailerra eta hori izango da Udalaren deiari erantzun diogunok gaur hemen aztertuko dugun gaia.

### Parte hartzaileak

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren tailerrean **40 pertsona baino gehiagok** hartu dugu parte. Ohiko parte hartzaileei nahiz gaur lehen aldiz hona etorri zareten guztiei, **eskerrik asko!** Foro hau zuen presentziarekin, iritziekin eta konpromisoarekin aberatsagoa eta erabilgarriagoa delako.

Arantxa Ibarreta (Iratzarri) • Begoña Santillán (Iratzarri) • Jose Ramon Beloki • Montse Vallejo • Izaskun Olaizola • Mikel Agirreburualde • Jose Luis Cid • Gladis Olabide • Floren Gutiérrez • Lidia Juaristi • Jone Aranburu • Jone Olea • Fran Cantero • Junkal Fernández • Joxan Auzmendi (Legazpiko Ingurugela) • Pablo Romatezabala • Lina Ranilla (Nagusilan) • M<sup>a</sup> Angeles Prieto (Buztintegi) • Roberto Alonso • Mailo Pinillos (Iiinti) • Gorka Iñurritegi • Rafael Gómez (Buskabaso) • Xabier Baztarrika (Buskabaso) • Aurelio González (Lenbur) • Manuel Fernández (Nagusilan) • Iñaki López de Arbina • Ana Manzanos • M<sup>a</sup> Jose Cantero (Nagusilan) • Rosa Agirre • Pepi Agirre • Arantza Lobo (Domingo Agirre eskolako Guraso elkarte) • Esther Agirre • Ángel Alonso • Juan Karlos Agirre • Isa Sanz • Asier Ezama (Haztegi ikastola) • Miguel Romatezabala • Javier Iraeta (zinegotzia) • Aitor Madina (zinegotzia) • Óscar Valbuena (zinegotzia) • Igor Urrate (zinegotzia) • Kepa Urzelai (Legazpiko alkatea) • Inma Hernández (Agenda 21eko teknikaria) • Iciar eta Zorione (Prometea, SC).

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Goazen harira! Sarrera laburra

Inma Hernandez Udaleko Agenda 21eko teknikariak ongi etorria eman digu guztioi eta gaia azaldu digu: **Legazpin autobusaren barne-zerbitzua.**

Laburtuz, Inmak eskaini dizkigun ideia garrantzitsuenak honako hauek izan dira:



- Legazpin autobusaren barne-linea sortzeko proposamena Legazpiko Udalak egin eta joan den 2008an erabateko gehiengoarekin Udalak berak onartu zuen *Mugikortasun Iraunkorreko Planetik* dator. Gainera plan hori egiteko bizilagunen eta interesa zuten herritarren parte hartzearekin egin zen.
  - Gogora ekarri du mugikortasun-planaren helburu nagusia Legazpin autoa gutxiago erabiltzea eta alde batetik bestera joateko osasuntsuagoak diren beste garraio bideei lehentasuna ematea dela. Hortaz, joan-etorriak oinez, bizikletaz eta garraio publikoa erabiliz egitea bultzatzen da, ordena horretan.
  - Bide horretan aurrera egiteko, Planak jarduketak proposatzen ditu 4 eremutan. Zehazki, honako neurriak proposatzen ditu:
    - *Oinezkoa babestea*: eremu batzuk oinezkoentzako egokitzea, espaloiak zabaltzea,....
    - *Bizikleta sustatzea*: bidegorriaren barne-eraztuna, loturak industrialdeekin,....
    - *Trafikoa antolatzea*: norabide bakarreko bidea, aparkalekuak murriztea,...
    - *Garraio kolektiboa sustatzea*: garraio publiko bertikala (igogailuak), tren geltokiaren kokalekua aldatzea eta trenen maiztasuna handitzea eta Legazpiko gune desberdinak lotuko duen herri-barruko autobusa.
- Beraz, Legazpin barne-zerbitzua eskainiko duen autobusa martxan jartzearekin honakoa lortu nahi da:
  - Legazpin auto pribatuaren erabilera murriztuko duen garraio publiko kolektiboaren aukera sortzea.
  - Gaur egun garraio publikoaren (trena edo herriarteko autobusa) aldeko apustua egin dutenei erraztasunak ematea.
  - Oinez ibiltzeko (adineko pertsonak edo mugitzeko ezintasuna dutenak) zailtasunak dituzten pertsonen haien beharrak aseko dituen garraio motorizatua eskaintzea.

Hortik abiatuta, Legazpiko Udalak hainbat gestio egin ditu gaiaren inguruan:

- Agenda 21eko Foroaren azkeneko tailerrean (urriaren 6koan) Udalak Legazpin herri-barruan autobusak egin dezakeen ibilbidea aurreratu zuen.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Hauxe da asmoa:

- Herri-barruko autobusak herrian zehar ibili eta auzoetara irits dezala.
- Geldialdietan eta ordutegietan tren-geltokiarekin eta Lurraldebus zerbitzuarekin lotura izan dezala. Erabaki gabe dago Lurraldebus zerbitzuko autobusak egun prestatzen duen zerbitzua prestatzen jarraituko duen (Zumarragatik etorrira herri barrutik igarotzen da) edo industrialdeko errotondaraino bakarrik iritsiko den, bertan bira egin berriro Zumarragara itzultzeko. Azkenekoa eginez gero, sarriago izango genuke autobusa Zumarragaren eta Legazpiren artean (ordu erditik ordu erdira eta ez orduro).
- Horrezaz gain, azkeneko asteetan Udala harremanetan egon da antzeko zerbitzua eskaintzen duten beste udalekin eta baita zerbitzu hori eskaintzen duen hornitzailearen batekin ere. Harreman horien helburua zerbitzuaren ezaugarriak, erabiltzaile-kopurua, kostua, finantziazioa,... ezagutzeko izan da. Zehazki honako herrietako autobus zerbitzuen datuak ezagutu dira: Arrasate, Hernani, Tolosa eta Zarautz.

Eta guzti horrekin, gaurko tailerra ondoko bi premisen gainean antolatu dugu:

- *Udalak konpromiso irmoa du eta* Legazpin martxan jarri nahi du zerbitzu hori.
- Era berean, legazpiarren beharrei ongi erantzuteko *hausnarketa egin eta zerbitzua oso ondo zehaztu beharra* dagoela uste du. Izan ere denon iritzia izango dela uste dugu, Legazpin autobus bat hutsik ikustea autobusa ez edukitzea baino okerragoa izango litzatekeela.

## Foroak, zein iritzi du autobus zerbitzu horren gainean?

Gaia azaldu ondoren, Foroari eman diogu hitza, hau da, gaurko tailerrean parte hartu dutenei. Eta honako galdera egin diegu:



Legazpiko mugikortasun iraunkorreko planean jasotako helburuen arabera, planteatzen den barruko autobus-linea: Nori zuzentzen zaio? Erabiliko al da? Beharrezkoa al da?

Galderaren gainean banaka hausnartzeko minutu batzuk eman ondoren, hurrengo orrialdeko taula bete dugu, jasotako ekarpen eta iritzi desberdinak batuz:

- Lehenbizi zerbitzu hori erabiliko luketenen zutabea bete dugu.
- Ondoren, erabiltzaile potentzial bakoitzerako, honako galderak erantzun ditugu: **zure ustez, publiko horrek erabiliko al du zerbitzua? Baietz uste baduzu, zein baldintzatan? Ezetz uste baduzu, zergatik?**

Hori dena batuta taula osatu dugu eta, tailerraren ondoren, taulan jasotakoari esker autobus zerbitzuaren ibilbide posiblea planteatzeko ideiak atera ditugu (ideia horiek hurrengo atalean jaso dira).

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Erabiliko al dute herri-barruko autobus zerbitzua?		
Zeintzuk dira erabiltzaile potentzialak?	Bai, baina ...	Ez, zergatik...
<ul style="list-style-type: none"> <li>Legazpi eta Zumarraga lotzen duen <b>Lurraldebus</b> zerbitzua erabiltzen duten pertsonak</li> </ul> <p><b>OHARRA:</b> Zumarragatik Legazpira Lurraldebus zerbitzuan datozen pertsonak, edo alderantziz, autobusa aldatu beharko lukete autobus biak elkartuko diren puntu batean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Erabiltzaileari bidaiaren prezioa garestitzen ez bazaio (hau da, txartel berdinarekin bai Lurraldebus eta bai herri-barruko autobusa erabiltzeko aukera izan dezala), edo ibilbide tartek ordaintzeko aukera eskaintzen bazaio. Txartela bakarra aukera interesgarria izango litzateke.</li> <li>Bien arteko ordutegiak koordinatuta badaude eta autobusa aldatzea azkar egiten bada.</li> <li>Lurraldebus zerbitzuak industrialdean geratu eta hor herri-barruko autobusarekin lotura badu; horrela Zumarragara doazen bidaien maiztasuna handitu egingo da.</li> <li>Merkatalgunera (Dia) joan eta erosketekin etorri nahi dutenek erabiltzeko aukera eskaintzen bada.</li> <li>Pertsonari ondo etortzen bazaizkio ibilbideak eta ordutegiak.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsona gaztea bada, oinez joango da etxera edo Lurraldebus zerbitzuko autobusa hartzera.</li> <li>Gaur egun Lurraldebus enpresak oso zerbitzu ona eskaintzen du baita herri barruan ere.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li><b>Trena</b> –RENFE erabiltzen duten pertsonak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Herri-barruko autobusaren ordutegiak trenaren ordutegiarekin bat etortzen badira.</li> </ul> <p>Adibidez, puntako orduetan legazpiar askok hartzen dute trena (goizeko 7:30ean). Ordu horietan, autobusak zerbitzu berezia eskaini beharko luke.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Ibilbidea ondo etortzen bazaio (“geltokira joateko autobusean 20 minutu egin behar baditu ez du zerbitzu hori erabiliko”).</li> <li>Trenak maizago egonez gero.</li> <li>Autobusa Legazpiko goiko auzoetara iristen bada (han badago jendea egunero autoa hartu eta geltokira joaten dena).</li> <li>Geltokira iristea errazagoa bada (batez ere, adineko pertsonentzat eta ibiltzeko arazoak dituzten pertsonentzat).</li> </ul> <p>Horrela, interesgarria eta beharrezkoa da autobusa geltokiraino iristea eta ez behean geratzea, azkeneko aldapa baita oztopo nagusia. Bira egiteko plataforma jartzea azter daiteke (adibidez, Elantxobe herrian dagoen moduan <a href="http://www.youtube.com/watch?v=kojZdNrB_RA">http://www.youtube.com/watch?v=kojZdNrB_RA</a>).</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Pertsona gaztea edo ibiltzeko arazorik ez duena bada, oinez joango da geltokira.</li> </ul>

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Erabiliko al dute herri-barruko autobus zerbitzua?		
Zeintzuk dira erabiltzaile potentzialak?	Bai, baina ...	Ez, zergatik...
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Brinkola, Telleriarte eta Aztiria</b> auzoetako bizilagunak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autobusa gutxienezko maiztasunez auzoetara iristen bada. Auzoetan galdetu daiteke zeintzuk izan daitezkeen ordu-tegi egokiak, gutxienez egunero 3-4 aldiz bertara iristeko.</li> <li>• Geraleku egokiak eta ondo egokitutakoak baldin badaude.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaur egun, autoa erabiltzeko ohitura dutelako.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Mugikortasuna murriztuta</b> duten hiriguneko bizilagunak (adineko pertsonak, ezintasunen bat dutenak...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ordu-tegiak eta loturak egokiak baldin badira.</li> <li>• Autobusa egokitutakoa baldin bada.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Ondoren aipatzen diren gauzetarako <b>autoa erabiltzen ohi duten</b> hiriguneko bizilagunak:</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autoa erabiltzen dutenei aparkatzeko zailtasunak jartzen bazaizkie.</li> <li>• Autoa erabiltzeak duen eragin negatiboaren eta garraio publikoaren onuren gaineko sentsibilizazio ekintzak egiten badira.</li> <li>• Autobusak nahiko plaza eskaintzen baditu.</li> </ul> <p>OHARRA: 3 baldintza horiek autoa erabiltzen duten azpialde guztientzat dira aplikagarriak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosoagoa egiten zaie autoa erabiltzea.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- <b>Industrialdeetara lanera</b> joateko</li> </ul>		
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hiriguneko <b>zerbitzu publikoetara</b> joateko (osasan-zentroa, Udala, ikastola...)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autobusa goiko auzoetara iristen bada (bereziki Urtatza auzora), bertan egon daitezkeen adineko pertsonen edo ibiltzeko zailtasunak dituzten pertsonen zerbitzua eskaintzeko.</li> </ul>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko dendetan <b>erosketak egiteko</b></li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Autobusa goiko auzoetara iristen bada (bereziki Urtatza auzora).</li> <li>• Hiriguneko (dendak dauden gunean) etxera itzuli arte erosketak uzteko leku bat eskaintzen bada, erosketekin hara eta hona ez ibiltzeko.</li> <li>• Autobusean erosketetarako orgak sartzeko aukera baldin badago.</li> <li>• Autobus-zerbitzua dendetako beste ekimenekin osatzen bada; adibidez, erosketetarako orga erabiltzeko kanpainak, erosketak oinez egitekoak...</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erosketak egin eta gero horiek uzteko lekua behar dute (autoa). Legazpin, herritar askok ostiraletan egiten dituzten erosketak eta gero hiriguneko geratzen dira bueltatxo bat ematen.</li> </ul>

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Erabiliko al dute herri-barruko autobus zerbitzua?		
Zeintzuk dira erabiltzaile potentzialak?	Bai, baina ...	Ez, zergatik...
- <b>Aisialdia</b> (poteatzea...)		
<ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Bisitariak</b>, familiak... Legazpira turismoa eginez trenean etortzen direnak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Trenen, autobusen eta bisitatu nahi dituzten guneen (Lenbur, Mirandaola,...) ordutegiak bat etortzen badira.</li> <li>• Talde txikiak badira.</li> </ul>	

Gainera, taldeak adierazi dituen **beste ideia interesgarriak** ekarri ditugu hona:

- Zer egin liteke automobila erabiltzen dutenek autoa aparkatzea zailagoa izan dezaten eta, ondorioz, herriko autobusa erabiltzen has daitezen? Bi proposamen egin ditugu:
  - Gaizki aparkatuko duenari isuna jartzea baina guztiontzat irizpide berdinak erabiliz eta guztiei aplikatuz.
  - Sentsibilizazioarekin zerikusia duen guztia indartzea, mugikortasunean ohiturak aldatzea epe luzeko erronka delako eta etengabeko ahalegina eskatzen duelako. Horregatik oso inportantea da aukera desberdinak eskaintzea eta kasu honetan herri-barruko autobus zerbitzua da eskaintza.
- Autobusak bizikletak eramateko aukera izatea azter daiteke, modu horretan intermodalitatea sustatuz.
- Txartelaren prezioari dagokionez eta erabiltzaile izango direnen fideltasuna nolabait saritzeko, prezio murrizta proposa daiteke hiruhileko edo urteko txartela eskainiz; hau da, gehien erabiliko duenak merkeago erabil dezala.
- Beste erabiltzaileentzako, adibidez Legazpira Mirandaola edo beste baliabide turistikoak bisitatzera datozen bisitarien talde handientzako (ikasleak,...), formula osagarriak azter daitezke, "egokitutako" prezioa eskainiz. Zerbitzua planteatu den moduan, herri-barruko autobus hori agian ez da nahikoa behar guztiei erantzuteko.

## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

### Laburtuz, zer atera dugu argi eztabaida honetatik?

Izan dugun eztabaida aberatsa eta parte hartzailea izan da eta, horretatik, Legazpin herri-barruko autobus zerbitzuari forma emateko balioko dizkigun ondorio batzuk atera ditugu. Honakoak dira:

- Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroak udalerrian autobus zerbitzua sortzea **interesgarria eta beharrezkoa** dela uste du.
- Era berean, **ibilbide eta ordutegi egokiak** diseinatzea oso inportantea dela uste du, zerbitzua erabil dezaketenek horrela egin dezaten. Diseinu hori egiteko lagungarriak izan daitezkeen ideiak:

Oso inportantea da, ahal izanez gero, herri-barruko autobusak...

- Lotura izan dezala Lurraldebus enpresak eskaintzen duen zerbitzuarekin (ordutegian)
- Lotura izan dezala legazpiarrek eta bisitariak gehien erabiliko dituzten trenen ordutegiarekin (CIVIS trenak)
- Puntako orduetan industrialdeetara doazen langileak eramateko aukera eskain dezala.
- Puntako orduetan ikastetxeetara joateko aukera eskain dezala.
- Brinkola, Telleriarte eta Aztiria auzoetatik eskatutako ordu zehatzetan egunero 3-4 zerbitzu eskain ditzala.
- Legazpiko goiko auzoetaraino (Urtatza,...) irits dezala, adineko pertsonen eta ibiltzeko arazoak dituzten pertsonen beharrei erantzuteko.

Horretarako, beti "ohiko" ibilbidea egin ordez, aukera bat izan daiteke zenbait ordutan autobusak ibilbide zuzenagoa egitea (puntu garrantzitsuenetara ahalik eta lasterren iristeko).

- Txartelaren **prezio egokitua eta zerbitzua erabiliko duten pertsonen fideltasuna** saritzea (hileko, hiruhileko edo urteko bonoekin adibidez) kontuan hartzeko puntuak dira.
- Eta gainera, bestelako neurri osagarriak planteatu dira, gaur egun autoa erabiltzen duten pertsona batzuk etorkizunean autobus zerbitzua erabiltzera irits daitezten. Adibidez, horrelako neurriak:
  - Bide-araudia hertsiki betearaztea (isunak gaizki aparkatuko dutenei, eta abar).
  - Euskal Herria plazako lurpeko aparkalekuaren prezioa zertxobait igotzea; bizilagunentzako agian bono bereziak planteatzea. Adibidez, "gauero autoa lurpeko aparkalekuan aparkatzeko 30 euroko hileko bonoa, gaueko euro 1".
  - Sentsibilizazio kanpainak autoa gutxiago erabiltzeko eta motorizatu gabeko mugikortasunaren alde (oinez edo bizikletaz) edo motordun garraio kolektiboaren alde (garraio publikoa, autobusa kasu honetan eta tren) egiteko.

hauxe izango da Udalaren zeregina: **Autobusaren ibilbidea eta ordutegiak finkatzeko dauden aukerak zehaztea eta zerbitzua finantzatzeara nola egingo den aztertzea.**



## Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean

Beraz, horretaz hitz egiteko eta, ahal bada, Legazpirako eta legazpiarrentzako aukera hoberena adosteko, hurrengo tailerrean ere hemen izango gaituzue zain!

Ordura arte, **eskerrik asko eta izan ongi!**